

bestea, Erroma eta Madrilan artekoa, noizean behin Belgradotik eta Bucarestetik pasatzen dena. Bietatik zein eta nola nagusituko den jakiteko, Portugaleko egoeraren bilakaeraren\* zain egon beharko dugu. (Joan Mari Torrealday)

## INGALATERRA

### Bai ala ez

Erreferendumetan hautatzen dena, hitz soil hauetara biltzen da gehienetan. Bai ala ez? Baina hitz motz horien atzetik arazo handiak ezkutatu\* ohi dira. Gogoeta hauk\* irakurleak irakurri orduko, ingelesek erabakia dukete\* zer nahi duten: EEEen (Europako Ekonomi Elkartean) iraun, bai ala ez. Azken egunotan baiezekoak nabarmenki irabazi duela dirudi. Baina ezaguna da, Ingalaterrako hauteskondeetan sarritan nabarmenki kale\* egin dutela aurretik egin ohi dituzten azterketek.

Dena dela, dagoeneko\* beren jokabidea hartua dute indarrak handienek. Alderdi Kontserbakorra baiezekoaren



Ingeles langileak

«Gehienak kapitalaren Europa Batuaren kontra»

alde dago. Alderdi Lobarista, berriz, erdibituta ikusten dugu: ezker aldekoak ezezkoaren, eskuin aldekoak baiezekoaren alde. Sindikatuek gogorki jo dute ezezkoaren alde. Finantzako eta merkatalgoko\* jaunak, berriz, oso osorik eta bero bero EEEren alde agertu dira.

Banaketa honek zera dakar begitara, besterik gabe: Lanaren mundua Europarekin elkartzearen kontrakoa dela, kapitalaren mundua, ordea, Europarekin bat egitearen aldekoa. Batek baino gehiagok banaketa horren sustraian nazionalismoa aztertu nahi luke. Beraz, nazionalismoaren izenean langileak Europaren kontra leudeke; internazionalismoaren izenean, berriz, kapitalistak Europaren alde. Non geldituko litzateke langileriaren nazioartekotasuna?

Egia da, alde batekoek eta bestekoek egiten duten propogandan ez dela ideologiazko arrazoinik erabiltzen, eta bai ekonomiazko datu ugari, bi urtetan Europarekin elkartuta egoteak Ingalaterrari zer on eta zer oker ekarri dion agertzeko.

EEEren kontrakoentzat, Ingalaterrak jasaten\* duen ekonomiaren eta lanaren egoera larria, Europarekin elkartuta egotearen ondorioa litzateke; aldekoentzat, ostera, EEEekin elkartuta egon ez balitz, larriagoa litzateke

orain Ingalaterraren egoera. Sakonago zulatuz oraindik, EEEren kontra daudenentzat Ingalaterra eta Europako beste Herrialdeak elkar ezinezkoak lirateke, haren eta hauen ekonomiazko egiturak\* hain ezberdinak direlarik.

Izan ere, Europako Ekonomi Elkartea, nekazaritza aldetik atzeratuak eta industri aldetik aurreratatuak ziren eta diren Herrialdeen artean sorturiko elkartea litzateke. Ingalaterra, ostera, nekazaritzan oso aurreratuta dago (langileetatik 3 % bakarrik lan egiten du nekazaritzan); baina industriak laguntza handia behar du, atzeratuta gelditu delako, Europako beste Herrialdeetakoaren aldean. Beraz, nekazaritza laguntzeko sortua den EEE ez zaio Ingalaterrari egokitzen. Hau da EEEren kontrakoen barneko arrazoinketa.

Eztabaida hauen guztion barnean Europako Ekonomi Elkartearen —hobeto esan, Europako batasunaren— kontzeptua bera da eztabaidatzen dena: zeintzuren\* batasuna nahi da, finantza eta kapitalaren Europarena, ala langileen Europarena? Orain arteko Europaren ekonomiazko elkartea hau kapitalaren Europa batua izan da, eta ez lanaren Europa batua.

Horregatik Ingalaterrako oligarkia Europa zalea eta nazioartekotasunaren oso aldekoa agertzen da, dirua nazioartekoa baita benetan, eta nazioarteko finantz gizonentzat eta nazioaskotako elkargoentzat Estatuaren arteko mugak kaltegarri baitira. Horregatixek Ingalaterrako ezker aldeko indarrak eta sindikatuak horrelako Europaren kontra daude. Eta hauek galduko badute ere, Europako batasun bideari ezten berri bat sartuko zaio, finantzaren eta kapitalaren Europa batua gertatu denau langileriaren batasun bidera abia dadin zirikatzu. (Patxi Kortabarria)

## ALEMANIA

### Egyptoko piramideen sekretua azaltzen

Berrogei ta bost mende zahar diren piramideen inguruan, ibili da solasik\* eta idatzi libururik. Azken berrehun urte hauetan, hogeita mila liburu goiti\* idatzi omen dira gai hortaz. Egyptoko harrimendi miresgarri horien ikusten, ehunka ibili dira jakintsuak, horien inguruan oraindik bizirik dagoen misterio zabala eta konplikatu zulu beharrez.

Guk ezagutzen dugun mundu zaharrean eginak izan diren harrizko eraikidura haundi horien esplikabideak ere nasaiki\* asmatuak izan dira. Eta denak, batak besteak baino espantagarriagoak.\*

Oraingo hontan, aleman fisikari baten esplikahidea aipatuko dugu. Denetan berriena da, eta orduko Faraon erregeek horrelako harrimendi harrigarriak zergatik egin erazi zituzten adierazten digu. Piramide gorenak ehun ta berrogei ta hamar metro gora ditu, berrehun ta berrogei metro zabal alde bakoitzeko eta sei milioi ta bostehun mila tonelada harri.

Fisikari horrek dioenez, eta ba du aparentziarik,\* Egyptoko lurretan bizi zirèn leinu\* edo jendalde guztien elkartzeko hasi ziren Faraon erregeak horrelako eraikiduren egin erazten, Egyptoko lurretan Estatu bakar eta azkar\* baten larderia\* eta administralgoaren\* finkatzeko.

Zoser erregeak, harmen indarrez, Egyptoko goi eta behere aldea elkartu zituen; eta honen seme Imhotep erregeak zuen piramideen egitea asmatu, bere erresumaren\* batasuna osatzeko.

Halabaina,\* urtean hiru hilabetez, Nilo hibaiak Egyptoko eremu zelaiak urpean estaltzen zituen; eta hiru hilabete horietan, orduko laborariak, denbora zertan ira-